

LZZ 2020

LH 4

ORDUTEGIA  9:30-13:30
 Telefono 645 005 496 (9:00-14:00)
udalekuak.oartzun@gmail.com
www.gazteoiartzun.net



		1	2	3
		ONGI ETORRIA + EZAGUTZA JOLASAK	ERREKA*	ERRELEBO JOLASAK
6	7	8	9	10
KANTALDIA ETA KANTU JOLASAK	IGERILEKUA**	LUR MATTE: URKABERA	ERREKA*	ABILEZIA JOLASAK
13	14	15 (1.hamabostaldia bukatu)	16 (2. hamabostaldia hasi)	17
IGERILEKUA**	KAMISETAK MARGOTU	AGURRA	MIMIKA JOLASAK	ZIRKUA DATOR!
20	21	22	23	24
IGERILEKUA**	GINKANA	ERREKA*	ARGAZKI BIDEZKO PISTA JOLASAK	UR JOLASAK***
27	28	29	30	
KARRIKARA GOIZ PASA	IGERILEKUA**	MAGIA ETA YOGA EGUNA	AGURRA	

OHARRAK:

* Errekan ibiltzeko oinetako egokiak ekartzea komeni da.

** Bainujantzia eta aldatzeko arropa ekarri behar da.

*** Oinetako egokiak, bainujantzia eta aldatzeko arropa ekarri behar da.

ARAUTEGIA

- ▶ Orduategia (9:30-10:00 / 13:00-13:30) errespetatzea eskatzen da.
- ▶ Osasun krisiaren ondorioz indarrean dauden protokoloak betetzea beharrezkoa da.
- ▶ Zerbitzuan zehar ahalik eta ohar gutxien banatuko ditugu. Beraz, plangintzatutako ekintzen gogorarazpenik ez dugu bidaliko. Horregatik, kontuan hartu igerilekua eta erreka jartzen duenetan beharrezko gauzak ekartzea. Plangintzan aldaketak ematen direnetan soilik bidaliko dugu oharra HHn eta LH1en. LH2tik aurrerako aldaketak hurrei ahoz jakinaraziko dizkiegu. Bestalde, egunero www.gazteoiartzun.net blogean hurrengo eguneko mailaz mailako planaren berri emango dugu.
- ▶ Urtebetetzeak janaririk gabe ospatuko ditugu. Beraz, ez ezer ekartzea eskertuko genizueke.
- ▶ Zerbitzura gupil gainean (bizikleta, patinetea,...) etortzeko aukera izango da. Eskura izango dugu bizikleten aparkalekua.
- ▶ Haur bakoitzak bere irudia babesteko eskubidea du, beraz, denon ardura da argazki eta grabaziorik ez egitea.
- ▶ Haurrak jostailurik, dirurik, mugikorrik, kamerarik ez ekartzea eskatzen da.
- ▶ Haurrak zerbitzuko ordutegian atera beharko balu aldez aurretik abisatzea beharrezkoa da.
- ▶ Ez dugu botikarik emango.
- ▶ Autobus geltoki bakoitzeko ordutegia errespetatzea eskatzen da, bai goizean autobusean uzteko orduan baita eguerdian jasotzekoan ere.
- ▶ Hamaietarako denbora tarte bat utziko dugu egunero. Familiaren esku janaria ekarri edo ez.